

BATXILERGOA

Bigarren hezkuntzaren azken etapa

Batxilergoa Bigarren Hezkuntzaren azken etapa da. Bi urteko iraupena du, eta unibertsitaterako edo goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbidea da.

Helburuak

Etapa horretako ikasketek honako helburu hauek dituzte:

- Prestakuntza orokorra ematea ikasleari, giza eta adimen-heldutasuna har dezan laguntzeko. Hartara, ezaguerak eta trebetasunak jarriko zaizkio eskueran, herritar erantzule eta kritiko izaten ikas dezan.
- Ezaguera-multzo bat ematea ikasleari, geroan egin nahi dituen ikasketen oinarria izan daitezen.
- Ikaslearen interesak, lehenetsunak eta aukerak bideratzea.

Batxilergo-motak

Lau batxilergo-mota daude. Geroko ikasketen aukerei hobeki erantzuteko, eta baita ere, ikasleak dituen interesak, gaitasunak eta trebetasunak egokiago bideratzeko. Hona hemen lau motak:

- Natura eta Osasun Zientzien Batxilergoa.
- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa.
- Teknologia Batxilergoa.
- Arte Batxilergoa.

Prestakuntza-ibilbideak

Batxilergoaren egituran prestakuntza-ibilbideak daude, horiek ikaslearen geroko ikasketen araberakoak dira. Hori horrela, irakasgaiak honela sailkatzen dira:

- Irakasgai komunak
- Modalitateko irakasgaiak
- Aukerako irakasgaiak

Etapa honen helburuak lortzen dituen ikasleari Batxilergoko titulua emango zaio.

Gainera, interesgarria iruditzen bazaizu, [batxilergoa ematen duten ikastetxeen zerrenda](#) kontsultatu dezakezu.